

## TXOSTENA, NAFARROAKO ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIARI BURUZKO FORU LEGEAREN AURREPROIEKTUA EGIN AURREKO KONTSULTA PUBLIKORAKO

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluan xedatzen denez, erregelamenduzko lege proiektu edo aurreproiektu bat egin aurretik kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren web atariaren bidez, etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuen eta erakunde nabarmenen iritzia jakiteko. Txostenean gai hauek jasoko dira:

- a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) Araua onestea beharrezko eta egoki den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.

Dokumentu honen xedea da Administrazio Prozedura Erkideari buruzko indarreko Legearen 133.1 artikulua planteatzen dituen gaiei erantzuna ematea eta oinarri gisa balio izatea zientzia eta teknologiari buruzko foru lege proiektua prestatu aurreko kontsultarako, arauaren balizko hartzaileek eta herritarrek, oro har, aukera izan dezaten parte hartzeko eta arauari buruzko ekarpenak egiteko.

### **a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.**

- Nafarroako I+G+b Sistemaren antolaketa falta, eta sistema horren bikaintasuna sustatu eta ekoizpen sektorearekiko elkarlana areagotu beharra.
- I+G+b arloko inbertsio apala, lankidetza, ezagutzaren transferentzia eta nazioartekotzea.
- Nafarroako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza plana sendotu beharra, Nafarroako I+G+b arloko politikak planifikatu eta koordinatzeko funtsezko tresna den aldetik.

- I+G+b arloko inbertsioari dagokionez Europan ezarritako helburuak ez betetzea: azken urteetan BPGrekiko I+G+b arloko inbertsioan eta Europako Berrikuntzaren Adierazlean izandako jaitsiera aldatu beharra dago, Nafarroa berrikuntza handiko eskualdea izatetik berrikuntza moderatuko eskualdea izatera iragan baita.
- I+G+b arloari baliabideak esleitzeko aurrekontu-egonkortasuna ziurtatuko duen esparru baten falta.

#### **b) Araua onestea beharrezko eta egoki den.**

Nafarroak bere Espezializazio Adimentsuaren Estrategia eguneratu du Europako Batzordeak garatutako Europa 2020 Estrategiaren esparruan. Estrategia horretan aurreikusitako xedeetako bat I+G+b sistemarekiko konpromisoa da, zeina zientzia eta teknologia plan batean eta zientzia eta teknologiari buruzko lege batean mamituko baita, finantzaketa publikoa aurrekontuen bidez handitu, eta gako-eragileen ingurunea hobetzeko konpromisoarekin.

#### **c) Arauaren helburuak.**

Foru lege honen bidez helburu hauek erdietsi nahi dira:

- Ongizatea eta bizi kalitatea hobetzea, gizartearen erronkak eta arazoak bideratzen laguntzeko.
- Nafarroa lider bihurtzea I+G+b arloan, Nafarroako enpresentzat lehiatzeko toki hobea lortzea, eta I+G+b arloa ardatza duen ekoizpen eredua ahalbidetzea.
- Nafarroako I+G+b Sistema (SINAI) antolatzea, haren bikaintasuna bultzatzea eta ekoizpen sektorearekiko lankidetza areagotzea.
  - o SINAI osatzen duten eragileak zein diren zehaztuz.
  - o Eragileen Erregistroa sortuz, bai eta ikerlarien eta ikerketa taldeen zerrenda bat ere.
  - o Nafarroako I+G+b arloko Aholku Kontseilua sortuz.

- o Nafarroako Berrikuntzaren Behatokia sortuz.
- Ikerketa sustatuz maila guztietan, oinarrizkoetatik hasita merkatutik gertuen daudenetara.
- I+G+b arloa epe luzerako diru baliabidez hornituko dela bermatzea, eta horien esleipena eta erabilera koordinatzea.
  - o Nafarroako Aurrekontu Orokorren bidezko finantzaketa egokiaren bidez.
  - o Mezenasgoa sustatuz.
  - o Aldeko esparru fiskala ziurtatuz.
- Ikerketa zientifiko teknikoaren arloko prestakuntza sustatzea, maila guztietan, lanbide heziketan, unibertsitatean eta doktoregoetan, garrantzia emanez bereziki emakumeei, gizartearen beharrak ase eta orekatzen lagundu beharrez.
- Nafarroan ikerketarako gaitasuna ziurtatzea, dagoena kudeatuz, berria erakarriz, eta ikerlari, zientzialari eta teknikari berriak trebatuz.
- Enpresaren eta ekintzailetzaren munduan ekimen berritzaile gehiago sortzen laguntzea, oinarri teknologikoarekin eta abiapuntua ikerketaren emaitzetan dutenak.
- Lankidetzat sustatzea, eta ikerketaren ezagutzaren transferentzia egiten laguntzea, Nafarroako I+G+b sistematik ekoizpen ehun produktibora.
- Nafarroan egiten den I+G+b nazioartekotzen laguntzea, bai enpresen aldetik bai Nafarroako I+G+b sistemako eragilearen aldetik ere, batez ere bertan.
- Zientziaren hedapenari laguntzea, eta zientziarentzat eta ikerketarentzat lagungarria den ingurunea sustatzea, gizartean zientziaren, ikerketaren eta berrikuntzaren balioaz dagoen pertzepzioa hobetzeko, garapen ekonomiko eta sozialerako eragile gisa ikus daitezen.
- Nafarroako Zientzia eta Teknologia Plana taxutzea, Nafarroako I+G+b arloko politikak planifikatu eta koordinatzeko tresna nagusia izateko.
- Zientzia, teknologia eta berrikuntza politika eta planak Estatuko Administrazio orokorrekoekin eta Europar Batasunekoekin koordinatzen laguntzea.

- I+G+b arloko inbertsioari (BPGaren gainekoa) joera positiboa ematea, eta epe luzerako goranzko inbertsiorako konpromisoa hartzea arlo horretan, gai estrategikotzat jotzen baita.

**d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.**

I+G+b arloa antolatu eta bultzatzeko, lege baten maila eta egonkortasuna dituen arau bat behar da.

Hain zuzen ere, lege esparrua Nafarroako Zientzia eta Teknologia Planaren bidez osatuko da.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 22an

Industria, Energia eta Berrikuntzako  
zuzendari nagusia

Yolanda Blanco Rodríguez